En marzo se celebró dFERIA 2022 en su edición XXVIII cuyo tema fue *equilibrio*. dFERIA es una **cita ineludible para el sector de las artes escénicas**. Se ha convertido en un claro referente para los profesionales de toda España y continúa afianzando sus lazos con los mercados latinoamericano y europeo. La Feria donostiarra especializada en espectáculos de interior tanto en danza como en teatro se caracteriza por la excelencia en la selección y exhibición de los espectáculos presentados.

Dinamizar el mercado de las artes escénicas, mediar e **interrelacionar a sus agentes** en foros de trabajo y dar a conocer las **nuevas tendencias escénicas** a través de una programación novedosa e innovadora son los objetivos básicos que año tras años se vigilan cuidadosamente, con especial atención a la **promoción de la creación vasca**.

Cuatro días de intensa actividad que convierten a dFERIA en un festival para la ciudad y una gran fiesta para profesionales y aficionados, ¡la fiesta de las artes escénicas! En la vigesimosexta edición de dFERIA, con *equilibrio* como leit motiv, se programaron **40 funciones de 26 espectáculos en 11 escenarios** distintos. Un total de **9000 personas** asistieron a las representaciones programadas y el nivel de ocupación medio rondó el 92%. Por disciplinas, el 54% de las propuestas fueron teatro, el 42% danza y el 4% otras disciplinas. De todos ellos el 54% fueron estrenos de una manera u otra, lo que denota la novedad que supuso la programación.



Azoka hau plataforma aparta da sektoreko eragileek elkar topa dezaten, non esperientziak, ezagutza eta arte-proposamenak trukatzeko aukera ugari bultzatzen baitira. Donostiako Azoka honek **negozio-parte handia** sortzen du zuzen nahiz zeharka, eta kalitatea ezaugarri duen merkatu bihurtu da.

Donostiak, dFERIAri esker, 150 aktore hartu zituen, programaturiko ikuskizunetan aritu zirenak, bai eta beste 500 profesional ere, zeinetarik 170 inguru programatzaileak izan baitziren.

Antzerki programazioari dagokionez, bereziki helduentzako **euskarazko antzerkiaren proposamenei** eusteko asmoa hartu genuen aintzat. Halaxe dihardugu 20 urte baino gehiagoan, eta ikus-entzuleen aldetik lortutako emaitza harrigarriki ona ari da izaten. Asmoari eustea bete fruituak ematen ari da. Oso emaitza onak dira horiek, eta horrek animatzen gaitu pentsatzera azken 20 urteotan eremu horretan egindako lanak, programazioan behin eta berriz saiatzeak eta Euskararen Udal Zerbitzuarekin batera antolatutako sariak berak ekarri dutela hau, Euskal Herri osoan euskarazko antzerkiaren programazio erregular bakarra dena. Euskarazko antzerkiaren kontsumoa sendotu egin zen ikus-entzule gazte eta helduen artean, horrek euskarazko dramaturgiari eta arte-arloari dakartzkion ondorio on guztiekin.

Euskarazko antzerkiaren aldeko lanak **Donostia Antzerki Saria** emateko galarekin jotzen du goia, non helduentzako Euskarazko Ikuskizunik Onenari ematen baitzaio. Dirua ere ematen da, saritutako ikuskizuna saria emateko egun horretarako programatzen da, eta, gainera, artelan plastiko bat ematen da. 2022an, **Horman Fosterren Antigone edo ezetzaren beharrari** eman zitzaion, 2021eko Ikuskizunik Onena izateagatik. Sofoklesen antzezlan klasikoan oinarrituriko *Antigone* hau ezin garaikideagoa gertatu zen, eta sekulakoa izan zen haren oihartzunak euskaraz aditzea. Mendeetan konpondu gabe geratutako gatazkak eszenaratzen ditu, begirada umorezko bezain tragikoz. Jai distiratsu bat, alderdi asko dituzten pertsonaia ahaltzuak protagonista izan zituena.

La Feria es una extraordinaria plataforma de encuentro entre diferentes agentes del sector, en la que se promueven múltiples posibilidades de intercambio de experiencias, conocimientos y propuestas artísticas. La Feria de Donostia genera, directa e indirectamente, un **importante volumen de negocio**, erigiéndose en un mercado con label de calidad.

Donostia acogió, gracias a dFERIA, a más de 150 actores y actrices trabajando en los distintos espectáculos programados, además de los 500 profesionales, de los cuales unos 170 son programadores.

En cuanto a la programación de teatro, se planteó defender especialmente las **propuestas de teatro en euskera** dirigidas al público adulto. Así se hace desde hace ya 20 años, y el resultado obtenido con el público está siendo sorprendentemente bueno. La persistencia está dando sus frutos. Resultados muy buenos, que animan a pensar que el trabajo de estos 20 años en este ámbito, la insistencia y la regularidad de la programación, y el premio constituido junto con el Servicio Municipal de Euskera han conseguido poder contar con la única programación regular de teatro en euskera de toda Euskal Herria. Se consolidó el consumo de teatro en euskera entre el público joven y adulto con las connotaciones positivas de cara a la dramaturgia en euskera y al sector artístico.

La labor en favor del teatro en euskera tiene su clímax con la celebración de la gala para la entrega del **Donostia Antzerki Saria** al Mejor Espectáculo en Euskera dirigido al público adulto. Cuenta con una dotación económica, se programa el espectáculo premiado el mismo día de la entrega y, además, se entrega una obra de arte plástica. Este año se concedió a **Antigone edo Ezetzaren beharra** de **Horman Foster**, como Mejor Espectáculo de 2021. Esta antígona basada en la obra clásica, no pudo ser más contemporánea y fue imprescindible escuchar sus ecos en euskera. Escenifica los conflictos no resueltos de los siglos, con una mirada tanto humorística como trágica. Una fiesta brillante protagonizada por personajes multifacéticos y poderosos.



Gure erakundea bere osoan arduratu duen kontua izan da Donostian haurrentzako antzerkiak zenbaterainoko lekua duen, hasi hiriko bederlatzi kultur etxeetatik eta udal antzokietaraino. **Haurtzarotik eszenaren alderako maitasuna lantzea erabakigarria da** txikien heziketan eta etorkizuneko ikus-entzuleak sortuz joateko.

Beste ardatz estrategiko bat, kezkatzen gintuena, arte eszenikoak etorkizuneko ikus-entzuleei hurbilaztea izan zen. Ikus-entzule berriak sortzea, alegia. Gazteenei eszenarako zaletasuna sorraraztea, arte bizien alderakoa, formetan zein edukietan berritzaile diren ikuskizunen bitartez, eta, horrez gainera, sortzaile gazteek eginak diren ikuskizunen bidez.

21 ikuskizunek osatu zuten udako antzerki-programazioa. Bi hilabete eta erdiz, **86 funtzioak 31.000 ikus-entzuletik** gora bildu zituzten Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean. Arrakastaz beteriko uda izan zen-

Victoria Eugenia Antzokia arte eszenikoen arloko eragile dinamizatzailea da (antzerkia, dantza eta, gutxiago bada ere, zirkua), eta urtero, urratsez urrats, aktiboki hartzen du parte sektorea ehuntzen. Antzokia ikuskizunen erakustoki bat baino gehiago da. Antzoki dinamikoa izan nahi du, kudeaketa-bide berriak urratuko dituena, erronka berriei ekingo diena eta erakuste hutsa baino harago iritsiko dena, konpromisoak hartuz eta modu desberdinean inplikaturaz proiektuetan, modu beteagoan. Gastuak partekatuz ez ezik, ikuskizunaren garapenean eta geroko bizitzan parte hartuz. Horregatik, koproduzitzeko asmoa dugu, hein batean bada ere; laguntzeko, berresteko, bultzatzeko asmoa, hots, proiektuaren parte izateko. Produzioen kostu handiek eta ondorengo banaketaren zailak bat egitera eta arriskuak hartzea behartzen gaituzte. Lasaitasun handiagoz eta baliabide gehiagoz sortzeko apustua egitera, zertarako eta emaitza artistiko onak eta ustiatze-aldi luzeagoak lortzeko. Victoria Eugenia Antzokiak honako ikuskizun hauek koproduzitu zituen 2022an: **Suzko txoria (Stravinski) / Malandain Ballet Biarritz; Erresuma / Kingdom / Reino; La celda sin noche; Ama; Celestina infernal; Hondamendia.**

La incidencia en el teatro para niñas y niños en la ciudad fue una intervención que preocupó y ocupó a la entidad entera desde los nueve centros culturales de la ciudad y desde los propios teatros municipales. **Trabajar desde la infancia el amor por lo escénico es clave** en la formación de las y los más pequeñas y pequeños y en la creación de los públicos del futuro.

Otro eje estratégico de preocupación fue acercar las artes escénicas a los espectadores del futuro en la creación de nuevos públicos. Inculcar a los más jóvenes el amor por lo escénico, por las artes en vivo, a través de espectáculos innovadores en las formas y en los contenidos, y que fueran, además, realizados por jóvenes creadores.

En cuanto a la programación de teatro de verano, **21 espectáculos** formaron parte de la misma. Durante dos meses y medio **86 funciones** atrajeron a más de **31.000 espectadores** a los escenarios del Teatro Victoria Eugenia y del Teatro Principal.

El Teatro Victoria Eugenia es un agente dinamizador del sector de las artes escénicas, teatro y danza, y circo en menor medida, que cada año, paso a paso, participa más activamente en los tejidos del sector. El teatro es algo más que un escaparate de espectáculos. Pretende ser un teatro dinámico, que apueste por nuevas vías de gestión, que asuma nuevos retos y que trascienda la mera exhibición asumiendo compromisos e implicándose en los proyectos de una manera diferente, con mayor intensidad. No únicamente compartiendo gastos sino colaborando en el desarrollo y en la vida posterior del espectáculo. Por esto, la voluntad de coproducir, aunque sea en una parte, y acompañar, avalar, impulsar..., en definitiva, formando parte del proyecto. Los altos costes de las producciones y la dificultad de la posterior distribución obligan a unirse y a apostar. Apostar para crear con más tranquilidad y con más recursos con el objetivo final de obtener buenos resultados artísticos y periodos más largos de explotación y retorno. El Teatro Victoria Eugenia ha coproducido durante el 2022 los siguientes espectáculos: **El pájaro de fuego (Stravinski), Erresuma / Kingdon / Reino, La celda sin noche; Ama; Celestina infernal; Hondamendia.**



Dantzan, badira urte batzuk lankidetzan estua dugula **Kukai Dantzarekin**, zeinak Espainiako Dantza Sari Nazionala baitu irabazia sorkuntza modalitatean. Folklorearen eta mito eta errito tradizionalen trataera ikusgarria du bereizgarri talde horrek, unibertsaltasunera eramaten baititu gaur egungo dantza-hizkuntzaren bidez. Eta ohi bezala, **Malandain Ballet Biarritz**, Victoria Eugenia Antzokiaren lankide estua eta etengabea 2007tik, urtero zenbait emankizun dakarrena antzokira. **Malandain Ballet** eta **Kukai** parte-hartzaile nagusiak izan ziren urte osoan zehar antolatutako prestakuntzarako eta dantzaren alderako sentsibilizazio-jarduerak koreografikoetan: topaketak, eskolak, lantegiak, laborategiak eta abar. Hortik sortu zen **Iturritik Jaialdia** izeneko dantza-ziklo berria.

Iturritik Jaialdia dantzari eskainitako ziklo sortu berri bat da. Asmoa tradizioz, hots, iturritik^o zuzenean edaten duten sorkuntza-lan koreografikoekin jardutea da, sortzaile askok jatorria har dezaten abiapuntu eta inspiraziotzat forma garaikideagoetarako bilakaeran. Xedea da **Iturritik Jaialdia**, iturritik zuzenean datozen sorkuntza-lanen bitartez, izatea ziklo bat joera horren lekuko bihurtuko dena.

Aipa dezagun, **Dantza Profesionalen Elkarteak** dantza sustatzeko eta garatzeko egindako lana, zeinaren adierazlerik nabarmenena **Dantzaren Hilabetea** antolatzea izan baitzen, eta zehatzago, **Dantzaren Gala**, Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan.

Arte eszenikoetan prestatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak bereziki zaintzen den ardatz bat eta 4500 lagun baino gehiago mugitzen dute urtean, hor sartzen direlarik lantegiak, laborategiak, ikastaroak, *masterclass*ak, trukeak, ikus-entzuleen eskola, proba-saio irekiak, artisten eta ikus-entzuleen arteko topaketak, eta abar.

Arte eszenikoak herritarrari hurbiltzea da kontua, erabiltzailea aberastuko duten ikuspuntuak eskaintzea, arte eszenikoa ezagutzen laguntzea, eta azken buruan, ikus-entzuleak sortzea, ikus-entzuleen sail berriak barne, hala dantzan nola antzerkian.

En danza se mantuvo una estrecha colaboración desde hace años con **Kukai Dantza**, Premio Nacional de Danza en la modalidad de creación. Distinguido por su excepcional tratamiento del folclore y los mitos y ritos tradicionales, que consiguen trascender a lo universal a través de un lenguaje contemporáneo. Y, como suele ser habitual, con **Malandain Ballet Biarritz**, estrecho y permanente colaborador del Teatro Victoria Eugenia desde 2007, con varias presencias cada año en el teatro. **Malandain Ballet** junto con **Kukai** fueron protagonistas y colaboradores en las actividades coreográficas de carácter formativo y de sensibilización hacia la danza que se organizaron a lo largo de todo el año: encuentros, clases, talleres, laboratorios y un largo etcétera. De ahí nació el nuevo ciclo de danza denominado **Iturritik Jaialdia**.

Iturritik Jaialdia es un ciclo de nueva creación dedicado a la danza. La idea es trabajar con creaciones coreográficas que beban directamente de la tradición, de la fuente, de los orígenes como punto de partida para muchas creadoras y creadores e inspiración en la evolución hacia formas contemporáneas. Se pretende que **Iturritik Jaialdia**, a través de creaciones que vienen directamente de la fuente, sea un ciclo que se convierta en testigo de esta tendencia.

Destacó también la labor en la promoción y desarrollo de la danza en manos de la **Asociación de Profesionales de la Danza** cuyo exponente más visible fue la organización del **Mes de la Danza** y, en concreto, en colaboración con el Teatro Victoria Eugenia la **Gala de la Danza**.

Las actividades formativas y de sensibilización a las artes escénicas es uno de los ejes que se cuida especialmente y que mueve al año más de **4500 personas** entre talleres, laboratorios, cursos, *masterclass*, intercambios, escuela de espectadores, ensayos abiertos, encuentros entre artistas y público, etcétera.

Se trata de acercar las artes escénicas al ciudadano, incorporar puntos de vista que enriquezcan al usuario, ayudar al conocimiento del arte escénico, y al final ir creando público y nuevos públicos tanto de danza como de teatro.



MUSIKA

Musika programazioari dagokionez, 2022ak egoera berria ekarri zuen eta erronka kitzikagarria ikus-entzuleak berriro erakartzearen aldetik.

Batetik, sumatzen zen *normaltasuna*. Gauza asko airean bazeuden ere, mundu guztiak ematen zuen ziurtzat bazetorrela.

Gauzak bere onera etortze horretan, faktore garrantzitsuenetako bat hau izan zen: pixkanaka irekiz joan zirela ikus-entzuleentzako aretoak, leku jakin batean egon beharrik gabe eta zutik egoteko moduko kontzertu programatuetakarako.

Antzokiek, pandemiak iraun bitartean, eutsi egin zioten musika-jarduerari eta eskaintzari, jendea zutik egon zitekeen beste lekurik ez zegoelako. Egoera hori aldatuz joan zen 2022an, eta kontzertuak berriro egin ziren areto egokienetan. Ikus-entzuleak aretoetara itzuli ahal izan ziren musika zutik entzuteko, eta berriro programatu ahal izan ziren halako aretoetarako moduko proposamenak.

Antzokiek, beraz, berriro eskaini zuten zegokien musika beren egunetan.

2022an berriro hasi ziren, orobat, nazioarteko birak, motel samar ekin bazioten ere. Bertako sortzaileek berriro aurkitu zuten kanpokoen lehia aurrez aurre. Ikus-entzuleak piztu egin ziren musika-eskaintza zabaldu zenean.

Baina, hala eta guztiz ere, aretoak ez ziren osorik bete berriro. Artean, araudiaren oztoporik gabe ere, bazen halako errezelo bat areto publikoetan bata bestearen ondoko eserlekuan jartzeko, eta bazirudien hara joateko osasunaren segurtasun-berme handiagoa behar zela, bat-batean deklaraturakoa baino.

Hori dela-eta, musika-programazioak, lekualdaketei eta edukiei jarritako mugen azken aztarnez harago, gorabehera handiak izan zituen harreraren aldetik, ikus-entzuleak arte-ekitaldi aurrez aurreko batera berriro etortzen hasi zirenean.

MÚSICA

En cuanto a la programación musical el año 2022 planteó una situación inédita y un reto apasionante en lo referido a la recuperación de los públicos.

Por una parte, se intuía la *normalidad*. Si bien con fuertes indefiniciones, todo el mundo la daba por descontada.

Uno de los factores más importantes en esa recuperación fue el hecho de que, paulatinamente, se fueron abriendo los locales a los que el público podía asistir, de pie y sin localización predeterminada, a los conciertos programados.

Los teatros de Donostia Kultura, en época de pandemia, mantuvieron la actividad y oferta musical dada la indisponibilidad de locales en los que el público solamente podía estar de pie. Esa situación fue cambiando en 2022 y los conciertos recuperaron sus recintos más adecuados. El público pudo volver a los recintos para escuchar música de pie y las propuestas que requerían de locales de este tipo pudieron ser programadas.

Los teatros, por tanto, volvieron a dedicar sus fechas a una oferta musical idónea.

2022 marcó también la, inicialmente tímida, reanudación de las giras internacionales. La creación local volvió a vérselas con la competencia foránea. El público se ilusionó con la apertura de la oferta musical.

Pero no por ello las salas volvieron a llenarse al 100%. Seguía existiendo, levantadas las barreras de la normativa, una cierta reticencia a ocupar asientos contiguos en los locales públicos y la asistencia pareció exigir una mayor garantía de seguridad sanitaria que la proclamada de un día para otro.

Todo ello hizo que el desarrollo de la programación musical, más allá de lo debido a los últimos vestigios de las limitaciones a los desplazamientos y aforos, se viera refrendada de forma irregular y con ciertos altibajos por un público que retomaba su condición de asistente a un acto artístico presencial.



Musika klasikoko zikloei dagokienez, **Donostia Musikak (Sorozabalen urtea), Baturak** eta **EGOk** modu bikainean sartu ziren berriz ere **Victoria Eugenia Antzokiko** programazioan, non arreta berezia eskaini baitzitzaizen ganbera-musikari, interprete gazteei eta euskal autoreen konposizioei

Bertako artista popularren sorkuntzak ere leku zabala izan zuen: **Idoia, Ruper Ordorika, Mikel Urdangarin, Jon Maia, Gure Ahotsak** (bosgarren edizioa), **Elena Setién, Juanmari Beltrán, Ansorena & Senperena, Álex Ubago, Mursego** eta **Joseba Tapia (Adarra Saria jasotzeko)**.

Kanpokoan artean, berriz, **Maika Makovski, José Gonzalez, Dorian Wood, Julieta Benegas, Depedro, James Rhodes, Guitarricadelafuente, Federico Albanese, Eliades Ochoa, Ismael Serrano** eta **Sivia Pérez Cruz**.

Jazza ere, **Jazzaldia** eta beraren aurreko **Bertako Taldeen** zikloaz gainera, oso presente izan genuen programazioan: Gaur egungo jazzaren ordezkari ezin nabarmenagoak izan ziren **Le Nuvole de Pier Paolo**, Italiako Kultura Institutuak babestua, **Immanuel Wilkins Quartet, Jerry Bergonzi, Liebman, Brecker, Copland Quintet, Sex Mob** eta **Tribute To Lee Morgan, Vincent Herringekin**.

Azkenik, gogoratzea komeni da Victoria Eugenia Antzokiak opera bat eta bi zartzuela eskaini zituela, arrakasta handiz eskaini ere: **Dido & Eneas, Don Manolito** eta **Adiós a la Bohemia**.

57. Jazzaldiak bere entzuleak berreskuratu zituen, oldean etorri baitziren programaturiko kontzertu guztietara: 150.000 lagun izan ziren guztira, eta 14 guneak bete zituzten. Ikus-entzuleek gozatu egin zuten kalitate bikaineko kontzertuetan, eta betiko geratuko dira oroimen kolektiboan iltzaturik, edizio batean non aretoen edukiera osoa erabili baitzen berriro, eta non berriro ireki baitzen hondartzako agertokia (Keler Gunea), non Kursaalera terrazek (Frigo Gunea eta Fnac Gunea) betiko giroa erakutsi baitzuten; Nauticool berriro ireki zen...

En lo que se refiere a los ciclos de *música clásica*, **Donostia Musika** (año **Sorozabal**), **Batura** y la **EGO** volvieron a ocupar de forma brillante la programación del **Teatro Victoria Eugenia** con especial atención a la música de cámara, los jóvenes intérpretes y la composición de autores vascos.

La creación popular local estuvo ampliamente representada: **Idoia, Ruper Ordorika, Mikel Urdangarin, Jon Maia, Gure Ahotsak** en su quinta edición, **Elena Setién, Juanmari Beltrán, Ansorena & Senperena, Álex Ubago, Mursego** y **Joseba Tapia** para recibir el **Adarra Saria**

Entre lo foráneo, **Maika Makovski, José Gonzalez, Dorian Wood, Julieta Benegas, Depedro, James Rhodes, Guitarricadelafuente, Federico Albanese, Eliades Ochoa, Ismael Serrano** y **Sivia Pérez Cruz**.

El Jazz, además de lo correspondiente al **Jazzaldia** y al ciclo de *Grupos Locales* previo al mismo, también estuvo muy presente en nuestra programación: **Le Nuvole de Pier Paolo**, con el apoyo del Instituto de Cultura de Italia, **Immanuel Wilkins Quartet, Jerry Bergonzi, Liebman, Brecker, Copland Quintet, Sex Mob** y el **Tribute To Lee Morgan**, con **Vincent Herring**, fueron ejemplos más que notables de la programación del jazz actual.

Finalmente, conviene también recordar que el **Teatro Victoria Eugenia** ofreció tres óperas o zarzuelas con gran éxito: **Don Manolito, Dido & Eneas** y **Adiós a la Bohemia**.

El **57 Jazzaldia** recuperó a su público que, masivamente, acudió a todos los conciertos programados, alcanzando una asistencia total de 150.000 personas que llenaron los 14 escenarios. El público disfrutó con conciertos de una excelente calidad musical que quedarán para siempre en la memoria colectiva, en una edición en la que se volvieron a tener aforos completos y en la que se reabrieron escenarios como los de la playa (Keler Gunea), las terrazas del Kursaal recuperaron su ambiente (Frigo Gunea y Fnac Gunea), Nauticool volvió a abrirse...



Jaialdiak eskertu eta aintzat hartu zuen jendearen erantzuna; izan ere, eguraldi ona lagun, esparru guztiak bete zituen, eta hori ez ezik, beste urte batez, oso jokabide onez eta inolako arazorik sortu gabe. Hiria musikaz blaitu zen sei egunetan, eta 79 kontzertuetako giroan jaia, ospakizuna eta berrelkartzeak izan ziren nagusi.

Arte- eta musika-kalitatearen maila bikaina izan zen oro har, eta Jazzeko eta beste genero batzuetako izar handiek kontzertu gogoangarriak eskaini zituzten, zeinen artean, batzuk aipatzekotan, hauek nabarmendu baitziren: **Simple Mind**sek 42.000 lagun bildu zituen Keler Gunean; **Mulatu Astatkek Donostiako Jazzaldia Saria** irabazi zuen; **Hiromik** gozatu ederra eman zuen bere hari-laukotea lagun zuela Trinitate Plazan; **Iggy Pop**ek, 75 urte aldean, hankaz gora jarri zuen Kursaal Auditorioa; **Vintage Trouble**ek dantzan jarri zuen mundu guztia hondartzan; **Craig Tabornek** aho-zabalik utzi zituen ikus-entzuleak bere inprobisazioekin, San Telmo Museoko Škodan; **Marco Mezquida & Juan de la Rubiak** liluratu egin zuten Victoria Eugenia Antzokiko FCCra etorritako jendea; **Herbie Hancock**ek argi utzi zuen sasoi betean jarraitzen duela eta inoizko jazz-musikari handienetako bat dela...

ZINEA

Zineari dagokionez, 2022a ospakizun-urtea izan zen (Zinemaldia, Kresala...), zinemaldiek eta erakustaldi independenteek jarraipena izan zuten, eta ezin ahaztu gure pantailetara iritsi ziren estreinaldiak ere. Hala ere, zuhurtziaz begiratu behar zaio une batzuetan ikus-entzuleak gutxitu izanari, zerikusia izan baitezake pandemia ondorengo ohitura-aldaketekin.

Aurten Donostia Kulturak subentzionatutako zinemaldien artean, gure aretoetan egin ziren, osorik edo partez, **Dock of the Bay XVI** (maiatzean), film laburrei eskainitako **Donoskino VI** (urrian), eta **Itsaspeko 46. Zinemaldia** (azaroan).

El Festival agradeció y valoró la respuesta del público que, acompañado del buen tiempo, no solo llenó todos los recintos, sino que, un año más, lo hizo con un comportamiento ejemplar y sin ningún incidente. La ciudad se vio inundada de música durante seis días, con 79 conciertos en los que el ambiente fue festivo, de celebración y de reencuentros.

La excelencia de calidad artística y musical fue generalizada y las grandes estrellas del Jazz, y de otros géneros, ofrecieron conciertos memorables de los que, por nombrar algunos, destacaron los siguientes: **Simple Minds**, que reunió a 42.000 personas en el Keler Gunea; **Mulatu Astatke**, galardonado con el **Premio Donostiako Jazzaldia**; **Hiromi**, que deleitó acompañada por un cuarteto de cuerdas en la Plaza Trinidad; **Iggy Pop**, que a sus 75 años revolucionó el Auditorio Kursaal; **Vintage Trouble** que puso a todo el mundo a bailar en la playa; **Craig Taborn** que maravilló con sus improvisaciones en el Škoda Museo San Telmo; **Marco Mezquida & Juan de la Rubia** que entusiasmaron al público asistente al FCC Teatro Victoria Eugenia; **Herbie Hancock**, que dejó claro que sigue estando en plena forma y que es uno de los músicos de Jazz más grandes de todos los tiempos...

CINE

2022 fue en lo cinematográfico año de conmemoraciones (Zinemaldia, Kresala...), de continuidad en festivales y muestras independientes, sin olvidar nuevas propuestas de estrenos puntuales que eligieron nuestras pantallas. No obstante, hay también que mirar con prudencia algunas tendencias de descenso de público en momentos puntuales, que pueden relacionarse con cambios de costumbres post-pandémicos.

Entre los festivales cinematográficos subvencionados este año por Donostia Kultura se celebraron total o parcialmente en nuestros espacios **Dock of the Bay XVI** (mayo), **Donoskino VI** (octubre), dedicado al cortometraje, y el **46 Festival de Cine Submarino** (noviembre).



Kresala zineklubak 50. urte bete zituen, eta ohiz kanpoko ekitaldien artean, zuzeneko musikarekin egindako proiektio bat eta hemen ekoiztutako dokumental baten estreinaldia, ospakizun horri buruzkoa.

Menditour Zine eta Mendi saioek jarraitu egin zuten urtarrilean eta maiatzean, oso harrera onarekin, eta harrera ona izan zuten, halaber, **Zinegoak** zinemaldiaren luzapenak (otsailean) eta **Emakumeen Etxea** ziklo berriak (azaroa), oraingo honetan Marta Mészáros zinegileari eskainia, Tabakalerarekin batera.

Antzoki Zaharrak hainbat eratako **gala ikus-entzunezko eta sozialak** hartu zituen: Larrotxene Kultur Etxearen ikasturte-amaiera gure **Bideoaldiarekin**, AGISAS gala *Bideak Zabalduz* proiektuarekin (azaroan), **Begiradak** erakustaldiaren amaierako gala (azaroan) eta **Homeless Festival** (abenduan). Victoria Eugenia Antzokian, Atzegiko ikasleek beren trebeziak erakutsi zituzten.

Bestalde, bi **dokumental** ere estreinatu dira Donostian: *Tipularen sehaska* eta *The Ying and Yang of Gerry Lopez*.

Euskara Zine Aretoetara programak, Tinkorekin egindako hitzarmen baten ondorio, proiektio-aretoetara eraman zituen ikasleak, gida praktikoekin batera, ohi bezala, adinaren arabera hautaturiko filmen gaiak lantzeko.

Azkenik, **Bang Bang Zinemak** saio arrakastatsuak izan zituen 2022an ere parte hartzearen aldetik; bat, **Beldurrezko Astearekin** lankidetzan egin zen.

2022an, **Giza Eskubideen Zinemaldia**, zeina Donostiako Udalak eta Donostia Kulturak antolatzen baitute, ikus-entzuleentzako eserleku guztiarekin eta beste hainbat jarduera paraleloekin itzuli zen, 2020an pandemia zela-eta bertan behera geratu eta 2021ean zenbait murrizpen izan ondoren. Ikus-entzuleek frogatu zuten oso bereak dituztela bai Zinemaldia bera eta bai haren balioak.

El **Cine Club Kresala** cumplió su 50 aniversario y entre los actos extraordinarios incluyó una proyección con música y el estreno de un documental de producción propia sobre dicha conmemoración.

Las sesiones de Cine y Montaña de **Menditour** continuaron en enero y mayo con buena acogida, como la tuvieron la extensión del festival **Zinegoak** (febrero), y el nuevo ciclo de **Emakumeen Etxea** (noviembre), consagrado en esta ocasión a la cineasta **Marta Mészáros**, en **colaboración con Tabakalera**.

El Teatro Principal acogió **galas audiovisuales** de diferente carácter: fin de curso de Larrotxene K.E. con nuestra **Bideoaldia**, gala AGISAS con su proyecto **Bideak Zabalduz** (noviembre), gala final de la muestra **Begiradak** (noviembre), y **Homeless Festival** (diciembre). En el Victoria Eugenia alumnas y alumnos de Atzegi mostraron sus habilidades.

De forma puntual, se han estrenado en Donostia los **documentales** *Tipularen Sehaska* y *The ying and yang of Gerry Lopez*.

El programa de **Euskara Zine Aretoetara** conveniado con Tinko volvió a llevar escolares a la experiencia presencial de la sala de proyección, acompañada, como es habitual, de guías didácticas para trabajar las temáticas de las películas seleccionadas según grupos de edad.

Finalmente, **Bang Bang Zinema** continuó con sus exitosas sesiones participativas, una de ellas en colaboración con la **Semana de Terror**.

En 2022 el **Festival de Cine y Derechos Humanos**, organizado por el Ayuntamiento de Donostia y Donostia Kultura, volvió con su cien por cien de aforo y la recuperación de más actividades paralelas, tras la suspensión debido a la pandemia en 2020, y las limitaciones sufridas en 2021. El público demostró su compromiso con este evento y sus valores.



Film luzeek errefuxiatuen eskubideak, palestinarren auzia, emakumeen eskubideak edo bioetika izan zituzten gaitzat, besteak beste. Euskal produkzioek toki nabarmena izan zuten, **Matrioskas**, **Matxitxako** eta **Norte Salvaje** estreinatu baitziren. Film laburra tresna garrantzitsua izan zen berriz ere kontakizun gehiago guregana ekartzeko, eta 16 lanek hartu zuten parte. Gainera, jendeak parte hartzeko moduko **solasaldiak** izan ziren saio askotan, protagonistak eta adituak bertan zirela.

Edizio honetako Ohorezko saria **Mendebaldeko Saharako EFA Abidin Kaid Saleh – Ikus-entzunezko Prestakuntzarako Eskolarentzat** izan zen. Adibide bikaina da kulturak, eta bereziki zineak, herri baten eskubideak aldarrikatzeko balio duela frogatzeko, nola eta bere komunikazio-tresnak eraikiz.

Ohiko egoitzez gainera, hots, gure antzokiez gainera, zinemaldiak beste irispide asko ditu. Hezkuntzari begira, hiru film eskaini zitzaizkien ikasleei, online eta aurrez aurreko formatuak konbinatuz, zinea eta balioak transmititzeko helburuarekin betiere. Martuteneko espetxera ere hurbildu zen Zinemaldia, eta ez zuen ahaztu dibertsitate funtzionalarekin duen konpromisoa, **9 saio programatu baitziren pertsona gorrentzat, eta hiru saio audiodeskribapenarekin.**

Zinemaldiaren osagarri, **sei erakusketa** egin ziren hirian, eta argazkilaritzak eta bereziki **Gervasio Sánchez** argazkilaria ezagunak leku nabarmena izan zuten. Berriz ere lankidetzan aritu ginen Eskurarekin, eta **Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen 4. Azoka** egin zen, **Bizikidetzaren aldeko memoria lantzeko baliabide pedagogikoen** inguruan.

Beldurrezko Astearen 33. edizioaren hasieran, zalantzak ziren ikus-entzuleek nola hartuko ote zuten “normaltasunera” itzultzea, hots, gaueko ordutegiak berriro, bai eta bi urtez erabili ez diren gune batzuk ere, tartean zirela kalea eta topagune ludikoago batzuk.

Los largometrajes abordaron desde el derecho al refugio, la cuestión palestina, los derechos de las mujeres o la bioética. Las producciones vascas tuvieron su lugar destacado, con los estrenos de **Matrioskas**, **Matxitxako** y **Norte Salvaje**. El cortometraje siguió siendo una herramienta importante de acercar más historias, con 16 trabajos participantes. Se realizaron además **coloquios** participativos en numerosas sesiones con protagonistas y personas expertas.

El Premio de Honor de esta edición fue para la **EFA Abidin Kaid Saleh – Escuela de Formación Audiovisual del Sahara Occidental**. Todo un ejemplo de que la cultura, y más específicamente el cine, sirve para transmitir los derechos de un pueblo, construyendo sus propias herramientas comunicativas.

Además de sus sedes habituales, nuestros teatros, el festival es accesible en muchos sentidos. La oferta educativa de tres películas combinó los formatos online y presencial, pero siempre con el objetivo de hacer llegar cine y valores a los escolares. El certamen se acercó también al centro penitenciario de Martutene, y no olvidó su compromiso con la diversidad funcional, programando **9 sesiones con accesibilidad para personas sordas y 3 sesiones con audiodescripción.**

El festival se complementó con **seis exposiciones** localizadas en distintos puntos de la ciudad, con especial presencia del formato fotográfico y del prestigioso **Gervasio Sánchez**. Se volvió a colaborar con Eskura, celebrando la **4ª Feria de Recursos Pedagógicos sobre Derechos Humanos**, centrada en los **Recursos pedagógicos en memoria para la convivencia.**

La edición 33 de la Semana de Terror arrancó con alguna incógnita respecto a la acogida de público en un periodo de vuelta a la “normalidad”, donde se recuperaron más horarios nocturnos del festival, así como algunos espacios que llevaban dos años sin utilizarse, incluida la calle y puntos de encuentro más lúdicos.



Ikus-entzuleen erantzuna ezin hobea izan zen; izan ere, lehen aldiz urte askoan, salgai zeuden abonua guztiak saldu ziren, eta ikus-entzuleen kopurua azken bederatzi urteotako handiena izan zen. Eskaintza onaz gainera, emaitza horietan eragina izan zuten, ziur asko, zinemaldia jai-zubi luze batean gertatzeak, gazteek gero eta ohitura handiagoa izateak Halloween garaian beldurrezko filmak ikusteko, eta *Irati*ren tiradizoak, denboraldian ikus-minik handiena sortu duen euskal filma izan baita.

Paul Urkijoren bigarren film luzeak, euskaraz errodatua hau ere, bidea ireki zion espainiar zinemaren uzta bikainari, bikaina hala formatu luzean nola laburrean. *Unicorn Wars* animazioa izan zen denboraldiko beste euskal produkzio garrantzitsu bat, eta bi horiei beste bost film labur gehitu zitzaizkien, hemen gertuko produkzioak denak ere. Ez da ahaztekoa Donostia Kulturak euskarazko **genero-sorkuntza**ren alde egindako apustuaren erabateko estreinaldia, *Azken partida* izenburukoarena alegia, bera izan baita *Oihua!* deialdiaren bigarren edizioaren emaitza.

2022an, berriro egin ziren kaleko jarduerak, eta hori da beste era bat Astean aretoetara etortzeko ohiturarik ez dutenengana hurbiltzeko, hau da, hirira atera eta erakargarri gertatzea. *Azokanibal* izenaren pean, euskal kulturaren topikoak irauli ziren berriro, beldurraren estetikak konbinatuta.

Urteko erakusketa paralelo handia, ezbairik gabe, Gipuzkoako Aldundiak **Luis Gasca** dibulgatzaileari omen egiteko bultzatutakoa izan zen, Okendo Kultur Etxean.

San Jeronimo kaleko aretoan, berriz, **Fuego Fatuo** madrildar artistak bere lehen erakusketa handia egin zuen, *Bestiario de lo inexplicable* izenekoa. **Arantza Sestayo** euskal herritarra izan zen *Euskadi Fantastikoaren* azken edizioko protagonista, eta ilustratzaile askok eskaini zioten bere ekarpena banpirismoari *Odol tinta*. Ezin ahaztu beste omenaldi bat, Beldurrezko Astean Antzoki Zaharreko balkoia hainbat eta hainbat aldiz sormen handiz jantzi duen **Tito Saavedrari** eskainia, Tolosako TOPICen.

La respuesta del público fue inmejorable, agotando por primera vez los abonos disponibles en muchos años, y cosechando unos números de espectadores que no se habían contabilizado en los últimos nueve años. Además de un buen menú, seguramente incidieron en estos resultados la presencia de un largo puente festivo, la creciente moda de visionado de películas de terror en época Halloween entre la juventud, y el tirón de la cinta vasca más esperada de la temporada, Irati.

El segundo largometraje de **Paul Urkijo**, rodado en euskara, abrió paso a una cosecha estupenda de cine español, tanto en formato largo como en cortometraje. La animación *Unicorn Wars* fue otra de las producciones vascas importantes de la temporada, y a ellas dos se sumaron otros cinco cortos con participación cercana. Sin olvidar el estreno absoluto de la apuesta de Donostia Cultura por la creación de género en euskara, el trabajo resultado de la segunda edición de la convocatoria *Oihua!*, titulado *Azken partida*.

En 2022 se recuperó la actividad callejera, que es una manera de acercar la Semana a todos aquellos que no necesariamente visitan las salas, de invadir la ciudad de una forma positiva. Con el leitmotiv de *Azokanibal* se subvertían de nuevo los tópicos de cultura vasca, combinando con estéticas de terror.

La gran exposición paralela de este año fue, sin duda, la promovida por Diputación de Gipuzkoa como tributo al divulgador **Luis Gasca**, con sede en Okendo Kultur Etxea.

En la Sala San Jerónimo el artista madrileño Fuego Fatuo realizó por primera vez una exposición ambiciosa de su Bestiario de lo inexplicable. La vasca Arantza Sestayo protagonizó una nueva edición de Euskadi Fantastikoa, y numerosas ilustradoras volvieron a enseñar su tributo al vampirismo con Odol tinta. Sin olvidar otro homenaje, al creador de tantos balcones legendarios del Antzoki Zaharra, Tito Saavedra, en el TOPIC tolosarra.



EKITALDIEN PRODUKZIOA

2022an, Produkzio Unitateak **679 ekoizpen** egin zituen.

Ekoizpenotan sartzen dira Victoria Eugenia Antzokia, SAren jaialdiak ere, hots, **Antzerki Feria, Giza Eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**.

Jasangarritasunaren aldetik, 2022an 3.018 lanpara LED teknologiarara aldatu ziren Victoria Eugenia Antzokian (ikuskizunak argitzekoak izan ezik).

Orobat, 2007. urteko zaharberritzean jarritako hozteko gailuaren ordezkari makina ahaltsuago bat ipini zen, eta hartara kontsumoak eta isurpenak gutxitu ziren. Jarduera horiek Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Funtzak (Next Generation Funtzak) finantzatu zituen.

I.II. Erakundearen egoera

Emaizta-kontua

2022ko Emaizta-kontuak 6.194.326 euroko emaitza negatiboa egotzi zuen; 2021eko ekitaldiko galerekiko (5.317.395,77 euro) % 16,49ko igoera suposatzen duelarik.

Gastuari erreparatu badiogu, ustiapeneko bestelako gastuek 2.619.449,18 euroko gorakada izan zuten, %35,07koa alegia. Igoera hori hein handi batean jarduera gastuan eman zen. Jarduera gastua 2021arekiko 2.241.986,64 eurotan igo zen, %71 alegia. Jazzaldia bere ohiko formatura itzuli izanak eragin zuzena izan zuen gastuaren igoera horretan. Antzerki eta dantza programazio gastuak ere gora egin zuen nabarmen, udako antzerkia izan zelarik joera horren isla garbiena.

PRODUCCIÓN DE EVENTOS Y ESPECTÁCULOS

Durante 2022, la Unidad de Producción de Donostia Kultura alcanzó la cifra de **679 producciones** realizadas.

Estas producciones incluyeron los Festivales de Donostia Kultura como la **Feria de Teatro, el Festival de Cine y Derechos Humanos, Jazzaldia y el Festival de Cine Fantástico y de Terror**.

En términos de **sostenibilidad**, en 2022 se produjo el cambio de 3018 lámparas del Teatro Victoria Eugenia (salvo la iluminación espectacular) a tecnología LED.

Asimismo, la enfriadora original de la restauración del año 2007 fue sustituida por una máquina más eficiente reduciendo consumos y emisiones. Dichas actuaciones fueron financiadas por el Fondo de Recuperación y Resiliencia de la Unión Europea (Fondos Next Generation).

I.II. Situación de la Entidad

Cuenta de Resultados

La Cuenta de Resultados de 2022 arrojó un resultado negativo de 6.194.326 euros, lo que supone un incremento del 16,49% sobre las pérdidas del ejercicio 2021 (5.317.395,77 euros).

Los gastos de explotación se incrementaron en 2.619.449,18 euros, un 35,07% con respecto al 2021. Este incremento se dio en gran parte en el gasto ligado a la actividad, que aumentó en 2.241.986,64 euros respecto a 2021 (un 71%). La vuelta del Jazzaldia a su formato habitual influyó directamente en este aumento del gasto. También aumentó considerablemente el gasto en programación de teatro y danza, siendo el teatro de verano el reflejo más claro de esta tendencia.



Aipatzekoa da 2022an energia elektrikoaren eta gasaren gastua 2021ean baino 65.513 euro altuagoa izan zela, %85 alegia.

Sarrerei dagokionez, negozio zifraren zenbateko garbiak 2021ekoarekiko 1.645.224,88 euroko gorakada izan zuen, %108,87koa alegia. Igoera hori sarrera salmentan eman zen hein handi batean 2021ean baino 1.174.501,30 euro gehiagoko sarrera salmenta izan zelarik. Gastuetan gertatzen den bezala, Jazzaldia bere ohiko formatura itzultzeak sarreretan ere eragin zuzena izan zuen. Sarrera salmentetan Jazzaldiaren errekor urtea izan zen, 500.000 euroko sarrerak gainditu genituelarik. Eta tabernetan ere sarrerak 2021arekiko oso nabarmen igo ziren. Antzerki eta dantza programazioan ere 2019ko sarrera salmentak gainditu genituen, 1.200.000 euroak gainditu genituelarik. Babesletza sarreretan ere 2021eko zenbakiak nabarmen gainditu bagenituen ere, pandemia aurreko zenbakietatik nahiko urrun gaude.

Ustiapeneko beste zenbait sarrerek 2021arekiko 103.110,55 euroko igoera jasan zuten, %15,20koa alegia. Igoera nabarmenena alokairu sarreretan eman zen.

Egoera balantzea

Erakundearen balantzean gertatutako aldaketa nagusiak honako hauek dira:

Aktiboa

- Ibilgetu ukiezina 2021arekiko nabarmen igo da; alde batetik ekonomia eta finantzak sailean izandako garapen teknologioen ondorioz eta bestetik web orriaren berrikuntza dela eta.
- Zordun komertzialetan eta kobratzeko beste kontu batzuetan % 60,67ko igoera Administrazio Publikoarekin beste zenbait kredituen eta Zerga arruntetako aktiboen igoeraren ondorioz.

Cabe destacar que en 2022 el gasto en energía eléctrica y gas fue 65.513 euros superior al de 2021, un 85%.

En cuanto a los ingresos, el importe neto de la cifra de negocios se incrementó en 1.645.224,88 euros, con respecto al 2021, un 108,87%. Este incremento se produjo en buena parte en la venta de entradas con una subida de 1.174.501,30 euros con respecto a 2021. Como ocurre con los gastos, la vuelta del Jazzaldia a su formato habitual también influyó directamente en los ingresos. El 2022 fue un año récord en ventas de entradas del Jazzaldia, superando los 500.000 euros. En los bares los ingresos también subieron muy notablemente respecto a 2021. En la programación de teatro y danza también superamos las ventas de entradas de 2019, que quedaron por encima de los 1.200.000 euros.

Los ingresos de explotación experimentaron un incremento respecto a 2021 de 103.110,55 euros, un 15,20%, siendo los ingresos por alquileres los que más subieron.

Balance de Situación

Las principales variaciones habidas en el balance de la entidad son las siguientes:

Activo

- El inmovilizado intangible se ha incrementado considerablemente con respecto a 2021; por un lado debido a los desarrollos tecnológicos realizados en el área de economía y finanzas y por otro por la renovación de la página web.
- Incremento del 60,67 % en los Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, como consecuencia de la subida de Otros créditos con las Administraciones Públicas y Activos por impuesto corriente.



Pasiboa

- Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuetan % 15,05eko jeitsiera, batez ere Beste zenbait hartzekodunetan izandako jeitsieraren ondorioz.
- Epe laburreko aldizkapenetan %62,89ko igoera.

II. Sozietatearen Egoera Orokorra: hurrengo ekitaldirako helburuak eta aurreikusitako bilakaera.

Elkartearen aldagai ekonomikoen aurreikuspenei dagokienez, 2023ko ekitaldiari begira jarduera mailari eustea espero dela nabarmendu beharko genuke, arrisku edo ziurgabetasun aipagarririk ez dagoelarik.

III. Kudeaketa-txostena aurkeztu baino lehen gertatutako jazoerak.

Ez da gertakizun azpimarragarririk jazo ekitaldia itxi eta kudeaketa-txosten hau osatu bitartean.

IV. I+G jarduerak.

2022 ekitaldian erakundeak ez ditu ikerketa eta garapenari buruzko jarduerak egin.

V. Berezko akzioei buruzko informazioa.

Erakundeak ez ditu berezko akzioak eskuratu.

VI. Sozietateak aurre egin beharreko arrisku eta kezkei buruzko informazioa.

Ez dugu erakundeak aurre egin beharreko arrisku edo kezkarik ezagutze

Pasivo

- Disminución del 15,05% en Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar, en gran medida por la bajada que ha habido en Acreedores varios.
- Incremento del 62,89 % en las Periodificaciones a corto plazo.

II. Coyuntura General de la Sociedad: objetivos para el próximo ejercicio y evolución previsible.

En cuanto a la previsión de las variables económicas de sociedad, cabe reseñar que las expectativas son las del mantenimiento del nivel de actividad de cara al ejercicio 2023 y sin que existan especiales riesgos e incertidumbres dignos de mencionar.

III. Hechos posteriores hasta la formulación del Informe de gestión.

No se han producido acontecimientos significativos con posterioridad al cierre de ejercicio y previos a la formulación del informe de gestión.

IV. Actividades de I+D.

En el ejercicio 2022 la entidad no ha realizado actividades en materia de investigación y desarrollo.

V. Información Sobre Acciones Propias.

La entidad no ha adquirido acciones propias.

VI. Información sobre riesgos e incertidumbres a los que se enfrenta la Sociedad.

No se conocen riesgos o incertidumbres relevantes a los que se enfrenta la entidad.



Donostia/San Sebastián, 2023ko martxoaren 29an

Donostia/San Sebastián, 29 de marzo de 2023




Eneko Goia Laso
Lehendakaria/ Presidente



Nekane Mandarte Azcue
Kontseilu-kidea / Vocal



Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
Kontseilu-kidea / Vocal




Duñike Agirrezabalaga Ugarte
Kontseilu-kidea / Vocal



Borja Corominas Fisas
Kontseilu-kidea / Vocal



Jon Insausti Mastierrena
Lehendakari/ordea/ Vicepresidente



Jaione Hervás Saéx de Arregui
Kontseilu-kidea / Vocal



Zigor Etxeburua Urbizu
Kontseilu-kidea / Vocal



Cristina Lagé Manich
Kontseilu-kidea/ Vocal



Aitzole Araneta Zinkunegi
Kontseilu-kidea / Vocal



